

SANTA AGEDA BEZPERAKO KOPLAK 2019

HASIERA

ZORION ETXE HONTAKO DENOI
OLES EGITERA GATOZ
ATERIK ATE OHITURA ZAHARRAK
AURTEN BERRITZEKO ASMOZ.
EZ GAUDE OSO ABERATS DIRUZ
EZTA ERE OINETAKOZ
BAINA EZTARRIZ SANO GABILTZA
TA KANTA NAHI DEGU GOGOZ.

2. DENDETAN

ESKEAN GATOZ, BAINA EZ GERA
EZ IJITO TA EZ PRAILE,
SANTA AGEDAK ATERA GAITU
KALETARA KANTATZAILE.
DENDA HONETAN KAJOITXO ASKO,
DENAK GILTZA TA ZERRAILE,
ESTRAPERLOKO KAJOITIK BOTA
EURUTXO PARE BAT MILE.

4. ETXEKO ANDREARI

ZELAI ERDIAN LOREAK ARGI,
LARROS, KRABELIN TA LILI;
ETXE HONTAKO ETXEKOANDREAK
AMA BIRJIÑA DIRUDI.
ETXE HONTAKO URDAIAZPIKO
ASKO, KAKUTIK ZINTZILIK,
TA LUKAINKA GORRIAK UGARI
BOL TSA BETETZEKO GURI.

6.- GURASOEN BAIMENA (HAURRAK)

GURASOEN BAIMENA BADUGU
GAUR ARITZEKO KANTUAN;
OHITURA HAU BAINO EDERRAGORIK;
EZ OMEN DAGO MUNDUAN.
HAREN ITZALA IZAN DEZAGUN
BETI GURE INGURUAN;
BERE LAGUNTZA BEHARKO DUGU
AZTERKETAKO ORDUAN.

1. TABERNETAN

ASPALDI HONTAN URA GARESTI
DABIL ESNE TA ARDOTAN,
MAHATS GUTXI IZAN ARREN, ARDORIK
EZ DA FALTA TABERNETAN.
JESUSEK URA ARDOTU BAZUN
KANAANGO EZTAIETAN,
HORIEN IKASLE AZKARRAK SORTU
ZAIZKIO ARDANGELETAN.

3. ETXEKO JAUNARI

MENDI TONTORRAK ELURREZ ZURI,
ATAI ALDEAN LAIHOTZA,
ETXE HONTAKO NAGUSI JAUNA,
URREZKOA DU BIHOTZA.
SANTA AGEDAK KENDU DIGU GAUR
ESKEAN ASTEKO LOTSA,
DIRURIK EZPADA BERDIN ZAIGU
GIZENDUTAKO BILDOTSA.

5.-LEZOKOGAZTETXOAK (HAURRAK)

LEZOKO GAZTETXOAK ELKARTUZ
ORAINTE GOAZ HASTERA;
ASPALDIKO OHITURA BERRITUZ
ETXE BATETIK BESTERA.
KANTA ZAHARRAK BERRI DITZAGUN
GALDUKO DIRA BESTELA;
JENDEAK JAKIN DEZAN GAUR DELA
SANTA AGEDA BEZPERA

BUKAERA

SANTA AGEDA BEZPERA DEGU
EUSKALERRIKO EGUNA
ETXE GUZTIAK KANTUZ POZTEKO
AUKERATUA DEGUNA.
SANTA MAITEA GAUR HARTU DEGU
GURE BIDEKO LAGUNA
HAREN LAGUNTZAZ BETE GENTZAKE
EGUN HONTAKO JARDUNAK. ¡EUP!

Oharra: Sta. Águeda Bezperako koplak.

Otsailaren 4an, astelehena, arratsaldeko 18:30ean, Musika Eskolatik
kalejira irtengo da eta 45 minutuko iraupena izango du.

(Musika Eskola, Ijurko, Atzekoate, Kale Nagusia, Donibane Kalea eta Plaza).

Euriarekin, Gurutze Santuaren Plazan egingo da.

Baserritarrez edo arropa ilunarekin (Txapela, zapia eta makila).